



EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren Erregelamendua

**-Betearazpen bertsioa-
(2023)**

Xedea	EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren Erregelamenduaren laburpen motza egitea modu ulergarri eta irisgarrian, horrela, bere hedapena eta planaren ezagutza errazteko.
Onespen sistema	<p>Administrazio Kontseiluak aurkeztu zuen 2019ko uztailaren 23an.</p> <p>Zuzendaritza Nagusiak onetsi zuen 2019ko uztailaren 30ean (bi urtean behin berrikusten da).</p> <p>Ezarritakoari jarraituz, 2021ean plana berrikusi zen.</p> <p>2022an berriz ere berrikusi eta eguneratu zen, 1030/2021 Agindua argitaratu eta gero.</p> <p>2023an bertsio eta eguneraketa berriak egin ziren, Araudi urraketan informatzaileen babesa eta iruzurraren aurkako borroka arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea argitaratu eta gero.</p>
Eguneraketa	<p>Lehen argitalpena: 2019-07-30</p> <p>Eguneraketak:</p> <p>2021-03-31</p> <p>2022-05-01</p> <p>2023-03-24</p>

EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren Erregelamenduaren laburpena

EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren Erregelamenduak bermatzen ditu Planaren efikazia eta eraginkortasuna, berau betetzen dela bermatzen duten neurriak diseinatzen eta ezartzen baititu.

1) Helburua

Zein da?	EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren Erregelamenduaren helburua da Araudia Betetzeko Plana modu efektibo eta eraginkorrean aplikatzen dela bermatzea, eta erakunde osoan ezartzea errazten du.
Horretarako...	<ul style="list-style-type: none">• Kontroleko Organo Independentearen nolakotasuna eta izaera zehazten dira, bere eginkizun eta erantzukizunak definituz.• Zehapen araubidea zehazten da, definituz zeintzuk izango diren aurreikusitako arau-haustek eta zein zehapen dagokien.• Arau-hauste gisa sailkatutako jokaerak zigortzeko prozedura definitzen da.• Planaren berrikuspen eta eguneraketa prozedura definitzen da.• Erregelamendu honek 1030/2021 Aginduak Iruzzurren Aurkako Neurrien Planentzat ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu.• Halaber, erregelamendua Araudi urraketen informatzaileen babesa eta iruzurraren aurkako borroka arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legeari dagokion araudira egokitu da.

2) Aplikazio eremua

<p>Erregelamendua aplikatuko zaie...</p>	<p>EITB Taldeko langile eta zuzendari guztiei (Erakundea eta EITB MEDIA SAU).</p> <p>Barneko informazio sistemari dagokionez, 2/2023 Legearen 3. artikuluan aipatutako kanpoko interesdun guztiei (kontratatistak, azpikontratatistak, Administrazio Kontseiluko kideak, langile ohiak, bekadunak eta abar).</p>
--	--

3) Kontroleko Organo Independentea

a. Kontroleko Organo Independentearen izendapena eta izaera

Nork izendatuko du?	EITB Taldeko goi-zuzendaritzako taldeak. Karguen izendapen berririk ez badago, kide berberak mantenduko dira.
Zer da Kontroleko Organo Independentea?	<ul style="list-style-type: none"> Organo horri jakinarazi behar zaizkio Araudia Betetzeko Planaren arau-huste posibleak horretarako gaituko den Informaziorako Barneko Sistemaren eta sistema berrikusteko arduradunaren bidez. Organoak independentzia osoa izango du bere eginkizunak gauzatzeko, eta ez da EITB Taldearen beste organoen aginduen menpe egongo. Bere eginkizunak gauzatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide material nahikoak izan beharko ditu. Gutxienez urtean behin bilduko dira.
Eraketa	<ul style="list-style-type: none"> Presidentea: Estrategia eta Komunikazio Saileko zuzendaria izango da. Idazkaria: Zerbitzu Juridikoen zuzendaria izango da. Kideak: Kontabilitate eta Finantzen zuzendaria eta Giza Baliabideen zuzendaria.

b. Kontroleko Organo Independentearen eginkizunak

<ul style="list-style-type: none"> EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren hedapena, ezagutza eta betearazpena sustatzea.
<ul style="list-style-type: none"> EITB Taldearen Araudia Betetzeko Plana interpretatzea eta zalantzarik egonez gero, jarduketak bideratzea.
<ul style="list-style-type: none"> Komunikazio bide bat ematea langileei, EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren betetze mailari buruzko informazioa jaso edo emateko.
<ul style="list-style-type: none"> EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren betetze mailari buruzko txostenak idaztea plana eguneratuta mantentzeko gomendio edo proposamenekin, bere edukia hobetzea eta bereziki landu behar diren alderdiak aplikatzen laguntzea.
<ul style="list-style-type: none"> Araudia Betetzeko Planaren urraketan barne salaketak jasotzea. Hau da, <ul style="list-style-type: none"> (i) Etika eta jokabide kodearen urraketak; (ii) Delituak prebenitzeko programaren urraketak (prebentzio neurriak); (iii) Iruzurren aurkako neurrien planaren urraketak (1030/2021 Aginduan xedatutakoan oinarrituta onetsitakoa), eta (iv) gerta daitezkeen administrazioko arau-hauste larriak edo oso larriak, eta orokorrean, araudiaren arau-hausteak.
<ul style="list-style-type: none"> Salaketak baloratzea eta instrukzio prozedura izapidetzea EITB Taldearen Araudia Betetzeko Plana eta/edo orokorrean ordenamendu juridikoa urratzen denean.
<ul style="list-style-type: none"> EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren urraketak gertatzen direnean zehapen prozedurak

<p>ebaztea, eta bermatzea behar bezala bereizten direla prozeduren instrukzio eta ebazpen faseak.</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Zaintzea langileak behar bezala prestatuta daudela EITB Taldearen Araudia betetzeko Planean.
<ul style="list-style-type: none"> • Bere jarduera gauzatzeko esleitzen zaizkion baliabideak administratzea.
<ul style="list-style-type: none"> • EITB Taldearen zuzendaritza organoei berriak, sistemaren ebaluazioak, emaitzak eta jardueren memoriak jakinaraztea.
<ul style="list-style-type: none"> • EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren hedapena, ezagutza eta betearazpena sustatzea.
<ul style="list-style-type: none"> • EITB Taldearen Araudia Betetzeko Plana interpretatzea eta zalantzarik egonez gero, jarduketak bideratzea.
<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio bide bat ematea langileei, EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren betetze mailari buruzko informazioa jaso edo emateko.

c. Kontrolako Organo Independentearen funtzionamendua

Bilerak	<ul style="list-style-type: none"> • Presidenteak deitzen duenean, ekimen propioen bidez edo kideren batek eskatzean bilduko da, edo gutxienez, urtean behin. • Deialdia idazkariak egingo du aurretiaz presidenteak agindu eta gero. • Bileretara joan ahalko dira Kontrolako Organo Independenteari beharrezkotzat jotzen dituen EITB Taldeko zuzendariak eta/edo langileak (gehiengo sinplez erabakiko da).
Erabakiak hartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Bilerak baliozkoak izango dira, beti ere kideen erdia gehi bat joaten badira (3). • Bertaratuen gehiengoak alde bozkatu beharko du. Presidenteak kalitatezko botoa izango du.
Interes gatazkak ebaztea	<p>Organoko kideren batek interes gatazka izango balu gai bat lantzerakoan, Sektore publikoaren araubidea juridikoaren legearen 23. eta 24. artikulua aplikatuko dira.</p>
Dokumentazioa	<p>Urtean behin azalpen memoria idatziko da, eta bertan jasoko dira zigor arriskuak prebenitzearen arloko jarduketa eta estatistika informazio garrantzitsuenak, Araudia Betetzeko Planaren ezarpenaren eta betetze mailaren analisi esparruan. Bereziki analizatuko da Iruzurren Aurkako Neurrien Planaren betetze maila, Araudia Betetzeko Planaren barnean dagoena.</p>
Sekretu betebeh arra	<ul style="list-style-type: none"> • Kontrolako Organo Independentearen erabakiak sekretuak izango dira, hau da, ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko. • Sekretu betebeharra Kontrolako Organo Independentearekin lan egiten duten guztiei aplikatuko zaie. • Salaketak konfidentzialak direla bermatuko da eta ez da salatzaileen aurkako inolako errepresaliarik onartuko, salbu eta salaketak gezurrak badira, eta ikusten bada salatzaileak fede txarrez jardun duela.

<p>Datu pertsonalak babestearekin lotutako betebeharrak</p>	<ul style="list-style-type: none">• Salaketei eta kontsultei lotutako datu pertsonalak Araudi urraketen informatzaileen babesa eta iruzurraren aurkako borroka arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritakoarekin bat etorritik bildu eta tratatuko dira.• Nahitaez betetzekoa izango da 24. artikulua, salbuespenik gabe.• Egindako salaketak eta kontsultak ezabatu egingo dira jasotzen direnetik hiru hilabetera, salbuetsita horiek gordetzeko arrazoia izatea salaketa edo kontsultaren ziurtasuna izan beharra.
---	--

4) Diziplina araubidea

<p>Zer da EITB Taldearen Araudia Betetzeko Planaren arau-hauste bat?</p>	<p>A) Arau-hauste oso larriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Edozein egitate edo jarduera egitea, horien balioa gorabehera, izaerarengatik pertsona juridikoen erantzukizun penala dakarten delituak sor ditzaketenak, eta zehazki, Delituak Prebenitzeko Programan definitutakoak. ⇒ Iruzurren aurkako neurrien planean ezarritakoa urratzea, baldin eta iruzurra, ustelkeria edo interes gatazkaren komunikaziorik eza badakarte. <p>B) Arau-hauste larriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Araudia Betetzeko Planean (Etika eta jokabide kodea, Delituak prebenitzeko programa edo Iruzurren aurkako neurrien plana) ezarritako neurriak urratzea, betiere aplikatzekoa den Hitzarmen Kolektiboan arau-hauste larriak badira. ⇒ Aurreko puntuan aipatutako arau-hausteren baten berri izan eta Kontroleko Organo Independenteari ez jakinaraztea horretarako ezarritako bideetan (salaketen kanala). <p>C) C) Arau-hauste arinak: B) apartatuan definitutako arau-hausteak, betiere Kontroleko Organo Independenteari uste badu ez direla larriak. Balorazio hori egiteko kontuan hartuko da Hitzarmen Kolektiboetan ezarritakoa.</p>
<p>Zein zehapen aplikatu ahalko dira?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arau-hauste oso larriak: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Diziplinazko kaleratzea (lan harremana badago) ⇒ Kontratua suntsitzea (merkataritza harremana badago) ⇒ Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren delitu zantzuak edo urraketak detektatzen badira, egitateak agintaritza eskudunari jakinaraziko zaizkio (Fiskaltza, Epaitegia, Gobernu). • Arau-hauste larriak: enplegua eta soldata etetea hiru eta hogeita hamar egun artean • Arau-hauste arinak: honako guztiak edo honakoetako bat: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Ahozko ohartarazpena ⇒ Idatzizko ohartarazpena ⇒ Enplegua eta soldata etetea egun batean edo bitan

5) Zehapen prozedura

a. Informaziorako barneko sistema

Zertarako?	Araudia Betetzeko Planaren eraginkortasuna bermatzeko, aukera egon behar da arau-haustek izan daitezkeen jokoerak salatzen.
Non aurkeztuko dira salaketak?	Helbide honetara bidali beharko dira: salaketak@eitb.eus . Salaketak anonimoak izan daitezke. Idatziz edo ahoz jakinarazi ahalko dira, eta hala badagokio, aurrez aurre azaltzeko hitzordua eskatzeko aukera ere egongo da.
Zer jarri behar da salaketan?	<ul style="list-style-type: none"> Korporazioaren hainbat plataformatan eskuragarri egongo den inprimakia atxiki beharko da beteta (“Araudia Betetzeko Planaren salaketaren inprimakia”). Horrez gain, salatutako egitateak gertatu izana egiaztatzen frogatu guztiak atxiki beharko dira
Nork salatu ahalko du?	<ul style="list-style-type: none"> EITB Taldeko langile guztiek (zuzendariak barne) EITB Taldeko hirugarren guztiek, interes taldeetako kideak badira 2/2023 Legearen 3. artikuluko aurreikuspenarekin bat etorriz.
Nor salatu ahalko da?	<ul style="list-style-type: none"> EITB Taldearen Araudia Betetzeko Plana urratzen duten EITB Taldeko langile guztiak (akziodunak, bezeroak, hornitzaileak, ekoiztetxeak eta abar) Kanpoko erakundeetako langile guztiak, baldin eta interes taldeak badira (akziodunak, bezeroak, hornitzaileak, ekoiztetxeak eta abar)
Salaketak, anonimoak izan daitezke?	<ul style="list-style-type: none"> Bai.

b. Salaketak jaso eta izapidetzea

Kontrolako Organo Independentek salaketa bat jasotzen duenean, zer egin behar du?	<ul style="list-style-type: none"> Presidenteak izapidegile bat izendatuko du Kontrolako Organo Independentearen kideen artean → eta jasotako salaketa izapidetzeko laguntzaileen laguntza jaso ahalko du. Aldi berean hiru salaketa baino gehiago jasoz gero, Kontrolako Organo Independentetik kanpoko izapidegile bat izendatu ahalko da. ⇒ Edonola ere, kasuaren instrukzioan parte hartzen duten eta Kontrolako Organo Independentetik kanpokoak diren guztiek konfidentziaztasun konpromisoa sinatu beharko dute.
---	---

<p>Nola bermatzen da salatzailea babestuta dagoela?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Errepresaliak debekatzea: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Salatzaileen aurka ezingo da inolaz ere errepresaliarik egin, ezta ere azkenean salaketak aurrera egiten ez badu (arau-haustea ezin izan delako egiaztatu). • Konfidentzialtasuna: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Salatzailearen eta arau-haustearen eraginpeko guztien konfidentzialtasuna bermatuko da. ⇒ Kontroleko Organo Independenteko kideak ez diren eta salaketaren berri jasotzen duten guztiek <i>ad hoc</i> konfidentzialtasun konpromisoa sinatu beharko dute. • Datuak babestearekin lotutako betebeharrak: EITB Taldearen salaketen fitxategiko datuen tratamendua eta lagapena une bakoitzean indarrean dagoen datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera egingo dira, eta zehazki, gaur Araudi urraketen informatzaileen babesa eta iruzurraren aurkako borroka arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legean jasotakoaren arabera. • Salaketen iragazkia → ekiditeko Araudia Betetzeko Planaren arau-hausteekin zerikusirik ez duten salaketak egitea: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Salaketen edukia mugatuko da: Araudia Betetzeko Plana urratu dezaketen edukirik ez badute, artxibatu egingo dira.
---	--

c. Prozedura izapidetzea

<p>Oinarrizko araua</p>	<p>Langileen estatutua eta EITB Taldearen indarreko hitzarmen kolektiboak</p>
<p>Informazioa</p>	<p>Salaketa jaso eta ahal bezain laster → salatutako gertakarien egiazkotasuna frogatzeko informazio guztia jasotzea.</p>
<p>Aukerak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arau-hausterik ez frogatzea → salaketa artxibatzea • Delitu zantzuak egiaztatzea: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Salatuari egitateen berri emango zaio (ez zaio esango salatzailea zein den), betiere aplikatzekoak diren Hitzarmen Kolektiboetan aurreikusitakoei jarraituz. ⇒ Izapidegileak espedientea emango dio Kontroleko Organo Independenteari → izapidegileak ezingo du parte hartu prozeduraren ebazpenean. • Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean arau-haustek detektatzea → 1030/2021 Aginduan ezarritakoa beteko da. • Bestelako arau-hausteen zantzuak egiaztatzea → Giza Baliabideen Sailari jakinaraziko zaizkio, espedientea ebatzi dezan Hitzarmen Kolektiboak eta Langileen Estatutua betez.

d. Prozedura ebaztea

<p>Delitua egin dela egiaztatzen bada</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Salatutako langilea diziplinaz kaleratuko da, eta aurretiaz aplikatzekoak diren Hitzarmen Kolektiboetan ezarritako prozedura izapidetuko da. • Egitateak eta frogak dagokion organo jurisdikzionalari jakinaraziko zaizkio (Fiskaltza, Epaitegia, epailea edo polizia).
<p>Iruzurren aurkako neurrien plana urratu dela egiaztatzen bada</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Iruzurren aurkako neurrien planean eta 1030/2021 Aginduan zehaztutakoa beteko da. • Arau-hausteak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan jasotako funtsen kudeaketari eragin badiezaioke, beharrezko neurriak ezarriko dira, eta hala badagokio, dagokion prozedura edo kontratua gelditu edo etengo da.
<p>Bestelako arau-hausteren bat egin dela egiaztatzen bada</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Giza Baliabideen Sailak espedientea ebatziko du arau-hauste bakoitzarentzat aurreikusitako zehapenak aplikatuz (EITB Taldean aplikatzekoak diren Hitzarmen Kolektiboetatik atera direnak), eta aipatutako Hitzarmen Kolektiboetan xedatutako prozedurari jarraikiz.

6) Aurretzeko Informazio Prozedura

Zer da?	Prozedura hori aplikatuko da trantsizio aldia beharrezkoa denean araudi berria indarrean jarri delako, araua bereziki konplexua delako edo beharrezko prestakuntza jaso ez delako.
Nola izapidetzen da?	<ul style="list-style-type: none"> • Kontroleko Organo Independentek izapidetuko du, zehazteko ea arau-haustea gertatu den edo ez. • Arau-haustea gertatu bada, zehaztu beharko da ea doluz egin den edo araudia ez ezagutzeagatik. • Dolurik ez dagoela ikusten bada, Kontroleko Organo Independentek arau-hausleak zigortuko ditu eta gogoraraziko zaie araudia bete behar dutela, eta horretarako jarraibideak emango zaizkie. • Beharrezkoa balitz, prestakuntza saioak antolatu ahalko dira.
Ezingo da Aurretzeko Informazio Prozedura aktibatu baldin eta...	<ul style="list-style-type: none"> • Legezko edo araubidezko arauen bat urratzen bada (hau da, bakarrik aplikatzekoa izango zaie EITB Taldearen barne araudiko urraketek). • Delitu zantzuak detektatzen badira. • Urraketak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren funtsak kudeatzeko prozedura bati eragiten badi. • Jada Aurretzeko Informazio Prozedura izapidetu bada pertsona eta egitate berberekin.

7) Kotsulten kanala

Zer da?	<p>EITB Taldearen Araudia Betetzeko Plana modu eraginkorren betetzen dela bermatzeko, eraginpeko guztiak ezagutu eta ulertu behar dute. Horregatik, beharrezkoa da bideak irekitzea kotsultak edo zalantzak helarazteko, edo arazo edo gai zehatzak ebazteko.</p> <p>Kotsulten kanala bat dator 2019/1937 Zuzentarauan jasotako araubidearekin.</p>
Nola egin daitezke kotsultak?	<p>Helbide honetara bidali daitezke: complianceinfo@eitb.eus.</p>
Formalitateen bat beharrezkoa al da?	<ul style="list-style-type: none">• Kotsultak anonimoki egin ahalko dira eta ez da beharrezkoa izango inprimakirik betetzea.• Edonola ere, kotsultak Araudia Betetzeko Planari lotuta egon behar dira; ez dira onartuko eremu hori gainditzen duten kotsultak.

8) Araudia betetzeko Plana berrikusi eta egokitzeko prozedura

Nork egingo du?	Kontrolako Organo Independentek
Noiz?	<p>Gutxienez bi urtean behin. Lehen berrikuspena 2021eko lehen hiruhilekoan egitea aurreikusi da (salbu eta ezohiko berrikuspena egin bada aurreko sei hilekoan).</p> <p>2021eko martxoan egin zen lehen berrikuspena.</p> <p>2022ko martxoan berriz ere berrikusi zen. Planaren izena aldatu zen (“Delituak Prebenitzeko Planaren” ordez gaur egun “Araudia Betetzeko Plana” deitzen da) eta Araudia Betetzeko Planari gehitu zitzaion 1030/2021 Aginduan arautu eta eskatutako lruzurren aurkako neurrien plana.</p> <p>2023ko martxoan berriz ere berrikusi da, eta Araudi urraketen informatzaileen babesa eta iruzurraren aurkako borroka arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legeko aurreikuspenei egokitu da.</p>
Prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu juridikoen Zuzendaritzak analizatuko ditu hauek: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Onetsitako dokumentazioa, prozesu eta protokolo berriak eta aldi horretan ezarritako neurriak, eta hala badagokio, ezabatu direnak. ⇒ Urtean behin Kontrolako Organo Independentek onetsi beharko dituen txostenak, Araudia betetzeko Planaren eraginkortasuna baloratzeko. • Zerbitzu Juridikoen Zuzendaritzak txosten bat egingo du, eta aurretiaz egoera aztertu eta gero: (i) plana egokitzea proposatuko du edo (ii) plana ez egokitzea proposatuko du, ez delako beharrezkoa. • Kontrolako Organo Independentek proposamena onartu, ukatu edo aldatuko du.
Ezohiko berrikuspena	<p>Egitekoa izango da, baldin eta:</p> <ul style="list-style-type: none"> ⇒ planaren xedapenak larriki urratu direla detektatzen bada ⇒ Neurriren bat eraginkorra ez dela detektatzen bada ⇒ Lanaren edukiari eragiten dion araudia indarrean jartzen bada